

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA: URTZI IGLESIAS
ARGAZKIAK: IÑAKI LARENA



Barazar (Araba)

Mapa eta iparrorratzari jarraituz

Gorbeialdeko basoek ostentzen dituzten leku miresgarriak ezagutzeko proposamena eskainiko dizuegu. Baina bestelakoetan ez bezala, oraingoan ez dizuegu ibilbide zehatzik emango, orientazio teknikak erabiliz zuek aukeratu beharko baituzue zeuena; beti ere guk adierazitako puntu batzutatik igaroz. Hori da, azken batean, orientazio kirolaren funtsa. Xedea beraz, bikoitza. Leku zoragarri berriak ezagutzea eta mendian orientatzeko gutxieneko jakintzak eskuratzea.

Barazar Gorbeia parke naturalaren baitan dago, Atxuriko harkaitzen magalean. Bertara heltzeko, Gasteiz eta Bilbo lotzen dituen N-240 errepidea hartu beharko dugu. Gasteizera-ko bidean goazela, Barazar mendatea igo eta, handik bertatik, zementuzko bide zabal batetik eskuinetara desbideratuko gara. Hura hiru kilometrotan jarraituz, Saldropo hezegunera helduko gara ia desagertu arte usiatu zen zohikaztegi zahar baten gainean.

Orientazioa Barazarren

Saldropo dagoen zabalgunea izango dugu abiapuntu –mapan hiruki batez adierazita dago–. Handik eta lehenengo punturako bidean, Barazarren aurki ditzakegun zuhaitz espezie ugarietako gara: birlandatatutako Korsikako larizio pinua, Douglas izeia, amerikar haritza, Japoniako laritza eta Lawson altzifrea bezalakoak dira nagusi.

Pinudi irekian dugu lehenengo geldiuena –zirkulu batez adierazita–; sasirik eta behe landaredirik ez egoteak alfombra berde baten gainean gaudela pentsarazten digu. Bigarren puntuak berriz, hormigoizko bidea utzi eta eguzki izpi bakanak sartzen uzten dituen baso horren lekurik gorenera eroango gaitu.

Handik hirugarren geldialdirako bidea bestelakoa izango da: beherako bidexka hartuko dugu eta berehala, iratzez beteriko eremu irekira irtenda, aurre-aurrean agertuko zaizkigu Urkiolako Parke Naturaleko mendi harritsurik adierazgarrienak. Handik aurrera, eta zuhaitz artera berriro barneratu arte, behiak, zaldiak eta ardiak izango ditugu lagun. Beheranzko aldapa amaitu bezain pronto, hezegune txiki bat ahal bezala igaro eta hirugarren puntuan paratuko gara.

Han agertuko zaigun bidetik hegoalderako norabiderantz jarraituz, Barazarren aurkituko dugun eremu ikusgarrienetako batera helduko gara, ipuinetan deskribatzen diren pagadi zoragarriak bezalakoak. Lurra estaltzen duten kolore anitzeko hostoak; urte sasoi honetako adar erdi biluziak gaınditzen dituen argitasuna; ur hotz eta gardena eroanez meandro txikiak sortzen dituzten errekaak... Horiek guztiek argazki kameraren

Zer da orientazioa?

Orientazioa jarduera erakargarri eta interesgarria da. Haren teknikaren oinarriko ezagutzak izadia eta abenturaren ateak zabaltzen ditu. Basoan zehar bideak jarraitzeko, aukeratutako tokiak bilatzeko edo leku ezezagun batera iristeko eta ziurtasunez itzuli ahal izateko, orientatzen jakitea ezinbestekoa da mendian ibiltzen direnentzat.

Horrez gain, orientazioa guztiontzako kirola da, izan ere, bai lasterka dabilen eliteko atleta, bai basotik eguna atseginez igarotzea baino bilatzen ez duen familia batu daitezke proba berean.

Orientazioa, jarduera modura, Ipar Europako herrietan hasi zen –Suedia, Norvegia eta Finlandia– mapa topografikoen azalpenarekin batera. 1888. urtean, Suedia eta Norvegiako gudarostearen baitan, orientazio hitza kirol esanguraz erabiltzen hasi zen lehen aldiz, gudarien prestaketa-ko osagarri modura. Lehenengo txapelketa zibila berriz, Tjalve-n egin zen –Osloetik hurbil– 1897. urtean, eta 1910eko hamarkadan lasterketa txikiak antolatzen ziren.

Lehen Mundu Gerrak, ordea, kirol honen garapena mugatu zuen. 1919an orientazio lasterketa modernoak egiten hasi ziren Nacka basoan (Stockholm). Bertatik, interesa Suedia osora zabaldu zen eta ondoren Finlandiara, Norvegiara eta Europako beste hainbat herritara. Ernest Killander, lasterketa horren antolatzailea izan zena, orientazio kirolaren aitatzat jotzen dute.

1961ean IOF sortu zen (Nazioarteko Orientazio Elkargoa), nazioarteko araudi bat eratu eta mundu guztian barrena kirol hau bultzatzea helburu. 1966an lehenengo aldiz egin ziren munduko txapelketak Finlandian eta 1977an orientazioak estatus olinpikoa lortu zuen.

Gaur egun orientazioa kirol eta aisialdiko jarduera da eta lasterketa batean 10.000 lagun biltzeko gai bada ere, harrigarriena lasterketa berean gurasoak, seme-alabak eta aitona-amonak elkartzen dituela da.

botoia sakatzeko gonbidapena egingo digute, zalantzarik gabe.

Ibilbide erdia egin dugu jada. Ondorengo metroak aberez beteriko zelai berdeetatik egingo ditugu –zuhaitz bakartietan ipini ditugu sei-garren eta zazpigarren igaro-kontrolak–. Paraje horretatik gabiltzala, aurrez aurre begiztatuko ditugu Gorbeia eta Aldamin. Gainera, ahalegin handirik egin gabe, zeruarekin bat egiten duen Gorbeia gurutzatzen ere

ikusirik ahal izango dugu. Egun garbia izanez gero, jakina.

Zazpigarren puntuaren parean dagoen bidezidorretik jarraituz, Gorbeialdea artzaintzan tradizio luzeko lurraldea dela erakusten diguten abeltzainen etxolen artetik igaroko gara –hain zuzen, abeltzaintzan oinarritzen da oraindik inguru horretako baserrietako ekonomia–, eta atzean utzitakoak baino baso sasitsuagoan sartuko gara. Tamalez, ez dugu behe-landaredi soi-



Orientaziorako mapa

Orientazio kirolean zehaztasun handiko mapa koloredunak erabiltzen dira, orientatzaileentzat baliagarriak diren elementu guztiak jasotzen dituztenak. Kasu gehienetan 1:10.000 edo 1:15.000 eskalakoak izaten dira.

Hitzartutako ikur kartografikoak: Hauen bidez, lurreko berezitasunak irudikatzen dira mapa gainean. Orientaziorako mapa guztietan ikur berdinak erabiltzen dira, IOFren (Nazioarteko Orientazio Elkargoa) zehaztapenak jarraituz.

Ikur horiek sei taldetan biltzen dira:

- 1.- Lurreko formak: Margo marroia.
- 2.- Haitz eta harriak: Margo beltza.

3.- Hidrografia: Margo urdina.

4.- Landaretza: Margo zuriz: Baso garbia.


Margo horiz, hiru mailatan berezia: zenbat eta argiagoa, orduan eta esparru garbiagoa.

Margo berdez, hiru mailatan berezia: zenbat eta ilunagoa, orduan eta esparru bilduagoa.

5.- Planimetria: Margo beltza.

6.- Gaineko irarkiak: Margo purpura.

Sestra kurbak: Lurreko gorabeherak adierazteko mapan marrazten diren lerroak dira. Garaiera bereko puntu guztiak lotzen dituzten irudimenezko lerroak dira, hain zuzen.



Kontrolen deskribapena

1. Bidegurutzea
2. Bidegurutzea
3. Bidegurutzea
4. Errekatxoa
5. Zuhaitz bakartia
6. Zuhaitz bakartia
7. Ikaztobia
8. Zuhaitz berezia
9. Interpretazio Zentroa

Orientazio mapa hau Bidea bizkaitar orientazio taldeak utzitakoa da. Harremanetarako: www.cobidea.com

lik aurkituko, izan ere, nahiz eta parke natural baten bihotzean gauden, bertako hainbat baso zur-industriarako erabiltzen dira eta diru irabazirik ematen ez duten zuhaitzetako adarrak kezka handirik gabe sakabanatzen

dituzte egurginek, ekosistema balio-tsuari kalte larria eginez.

Ikaztobiak

Aipatu baso horretatik barneratuz, mendiaren maldan modu artifizial-

lean agertzen zaizkigun terraza modukoak topatuko ditugu; antzina, Bizkaiko basoetan, ikatza lantzeko sortzen ziren ikaztobiak dira. Zazpigarren igaro-puntuak horietako bat ezagutzeko gonbidapena egiten digu.

Txangoaren azken txanpari helteko ordua ailegatu zaigu. Hego-mendebalderantz abiatuz, maldan behera ostera ere, Atxuritik Zeanuriko urtegirako bidean, pinudi ilun bat zeharkatzen, beste errekatso batekin egingo dugu topo. Interes gutxiko lekua dela pentsa genezake, baina ustezko goibeltasunaren erdian bada txoko magiko bat: errekat sortzen dituen ur jausi txiki eta putzuetako

Orientazio kirolean, norberak sortzen du, gutxi gorabehera, bere ibilbidea.





Gorbeia ren gailurrean ozta-ozta ikusten da gurutze ospetsua. Eskuman, Aldamin mendia.

batera salto egin guran, urteen indarrei eta gizakiaren jardueri aurre egitea lortu duen pago izugarria gailentzen da; paraje sinplea dirudien arren, gozamen handia sortarazten digun horietakoa.

Leku misteriotsu eta bakarti hura utzi eta minutu gutxira jendetsuagoa izaten ohi den Saldropoko Interpretazio Zentrorra helduko gara. Hori da, usu, Gorbeia tontorrera heltzea helburu duten mendizaleen abiapuntua. Han gaudela, Saldropoko lautadaren erdiko hezegunea begiztatu ahal izango dugu. Oso ekosistema berezia dago han, balio ekologiko handikoa.

Saldropoko zohikaztegia

Duela urte batzuk, hiru hektareako azalera eta 2.500-4.000 urte bitarte zeuzkan zohikaztegi bat ustiatzen zen Saldropon. Bertan aurki zitekeen zohikatz-geruza lodiera handikoa zen –hiru metrokoa ustez–, eta hori dela eta, inguru horren ustiapen industrialari ekin zion lorezaintzarako lurrrak prestatzen zituen enpresa batek. Baina kasu horietan gertatu ohi den bezala, gehiegizko ustiapenak zohikatz erre-serbak ia guztiz agortu zituen. Eremua suspertzeko planak egin dira gerora, landareen eta animalien bizi-baldintzak hobetzea helburu.

Interpretazio Zentro horretan, ekosistema apurkor horien garrantzia ulertzeko aukera izan eta gero, autorako buelta egitea besterik ez dugu, Barazar mendatetik Saldropora ekarri gaituen zementuzko pista 700en bat metrotan jarraituz.

Txangoa gogorregia ez bada ere, atsedena hartzeko aukera eskertzekoa da beti; horretarako ezin egokiagoa dugu Saldropoko zabalguenea. Trenbideko trabesekin egindako hesi batek inguratuta, altzifre basoan dauden mahaiaik eta erretegiak erabili ahal izango ditugu etxera itzuli aurretik. ■

Jaso astero **ARGIA** etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:

Helbidea: Posta kodea: Herria:

Herrialdea: Jaioteguna:

N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:

Ordainketa mota: Bankuz
 Talotiez
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOIA S.A.L. ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik

Banku edo aurrezki kutxa:

Titularra: N.A./I.F.K.:

Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:

Entitatea: _____ Sukurtsala: _____ K.D.: _____ Kontu zenbakia: _____

Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–

Aukeratu ongi etorri oparia

“Ardibidez” mahai-jolasa

“888 txiste” liburua

“Mokogorri” puzzleak

%25eko beherapena ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2007ko prezioak

130 € Hego Euskal Herrian
160 € Ipar Euskal Herrian



ARGIA

45